


FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresaren funtsezko jarduera oso argia da: **ikastaroen garapena eta salmenta**. Horren barruan sartzen dira lokaleko salmentak eta on-line salmentak.

Gure egitekoa bezeroentzako ikastaro erakargarriak diseinatzea izango litzateke, haien beharren eta eskariaren arabera. Diseinu horrek beharrezko materiala eta laguntza bisualak prestatzea ekarriko luke. Webgunearen kasuan, bideoak transkribatu beharko lirateke, eta testak edo probak prestatu, ikaslearen aurrerapenak egiaztatzeko. Jarduera hori ezin da eskuordetu, horrela sortzen baititugu diru-sarrerak.



Gainera, enpresaren beste funtsezko jarduera **webgunea mantentzea eta kudeatzea** izango litzateke, ikastaroen beste salmenta-puntuetako bat baita.

Halaber, enpresaren beste funtsezko jarduera **bezeroen poztasuna** bermatzea izango litzateke, beste edozein enpresatan bezala. Hau lortzen badugu, litekeena bezero horiek gure enpresa pertsona gehiagori gomendatzea da, gure bezero-kopurua handitzeko. Horregatik, **etengabe neurtuko** dugu bezeroen poztasuna eta gure **helburua** da **ahalik eta zerbitzu hoberen ematea**. Hori dela eta, esan dugun moduan, **inkestak** egingo ditugu beraien iritziak jakin dezagun. Horrela, gure enpresak jakin ahal izango du zer hobetu behar duen bezeroen poza lortzeko.



Gure enpresaren gainerako jarduerak, hala nola **garbiketa** eta **publizitatea**, ez dira funtsezkoak. Sortu berri den enpresa oso txikia garenez, jarduera horiek guztion artean egingo ditugu, baina etorkizunean, enpresa hazi eta diru-sarrerak handitzen direnean, jarduera horiek azpikontratatu ditugun enpresen esku utziko ditugu.